BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3900

EBAZPENA, 2014ko irailaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez deialdia egiten baita Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A. ren Ormaiztegi-Abadiano 1 eta 2 izeneko 132 kV-ko aireko linea elektrikoaren babes-eremuko zortasuna handitzearen eraginpean dauden finkak okupatu aurretiko aktak jasotzeko; finkok, Elorrio, Zaldibar eta Abadiño udalerrietan kokatuta daude (Bizkaiko Lurralde Historikoa).

ERREF.: L-7699 ASS-TLE.

ESP.: AT-H-2013/01.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Energia eta Meategien zuzendariaren 2014ko maiatzaren 28ko Ebazpenaren bidez, aipatu instalazio elektrikoa herritarrentzat onuragarria dela deklaratu zen.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera, onura publikoko deklaratzeak berekin dakar: eraginpeko eskubideak eskuratzea edo ondasunak okupatu beharra, eta, ondorioz, okupazioa premiaz egin beharra, betiere Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan zehaztutako ondorioetako.

Ondorioz, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen (1954ko abenduaren 17ko BOE) 52. artikuluarekin bat, lurralde-ordezkaritza honek erabaki du eragindako eskubideen jabe eta titularrei deitzea, Elorrio, Zaldibar eta Abadiño udaletxeetara, izan ere, bertan baitaude eragindako ondasunak. Bertan burutuko dira eraginpeko ondasunak okupatu aurretiko aktak eta, beharrezkoa bada, behin betiko okupazioarena.

Eraginpeko ondasunetan edozein eratako eskubideak edo interesak dituzten pertsona titularrak eta horretan bestelako interesik duten gainerako pertsona guztiak ere joan daitezke bilerara, bai zuzenean, eurak joanda, bai zeharka, euren ordez dagokion baimenarekin besteren bat bidalita; era batera zein bestera, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eraman beharko dituzte, baita kontribuzioko azken ordainagiria ere. Hala nahi izanez gero, peritu edo notario batek lagunduta ere joan daitezke.

Honekin batera doan zerrendan aditzera emandako egun eta orduan jasoko dira aktak, eta hori zitazio zedularen bitartez emango zaio jakitera titular bakoitzari, non lekua, eguna eta ordua adierazi beharko baitira. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako argitalpenak ere egingo dira.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz, bai interesdunek bai argitaratutako zerrendetan aipatu ez diren interes errealen eta interes ekonomikoen titularrek nahi adina alegazio aurkez ditzakete, eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrendetan egindako akatsak zuzentzeko, hain justu ere idazki baten bitartez Bilboko lurralde-bulegoan (Concha kalea 23-5), aldez aurretiko aktak jasotzeko izendatutako egunera arte.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 30eko 30/1992 Legearen 59.4 aurreikusitakoaren arabera eta Nahitaezko desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluko bigarren arauan aurreikusitakoaren arabera, iragarki honek

honako hauei jakinarazpena egiteko balioko du: identifikatu gabeko interesdun posibleei, eraginpeko ondasun eta interesen titular ezezagunei eta helbide ezezaguna dutenei.

Bilbao, 2014ko irailaren 8a.

Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
ADOLFO GONZÁLEZ BERRUETE.

ALDEZ AURRETIKO AKTETARAKO ZITAZIOA

ORMAIZTEGI-ABADIANO 1 ETA 2 IZENEKO 132 KV-KO LÍNEA ELEKTRIKOAREN BABES-EREMUKO ZORTASUNA HANDITZEA

Erref: L-7699 AT-H-2013-01 ASS-TLE

Elorrioko Udala

Katastroko Datuak							
Lur Saila (Proiektuaren Arabera)	Polígonoa	Lursaila	Titularra	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udala
2	8	112	Montoya del Pozo, Pablo	Urria	29	9	Elorrio
3	8	111	Amiano Arando, Felisa	Urria	29	9,30	Elorrio
6	8	108	Aranzabal Uriarte, Jesús	Urria	29	10	Elorrio
65	6	127					
56	6	197	Berrio Cenitagoya, Isidro	Urria	29	10,45	Elorrio
57	6	198					
67	6	126					
94	6	153					
106	5	C03 99					
61	6	194	Aranzabal Uriarte, Jose M.ª	Urria	29	12,45	Elorrio
102	5	98	Berrio Cenitagoya, Alejandro	Urria	29	13,15	Elorrio
147	3	129	Lazcano Garro, Juan (Vda. Dominga Irazola)	Azaroa	3	9	Elorrio
150	3	193					
156	3	121					
6	5	193					
10	5	162					
17	5	181					
155	3	120	Merchain, S.A.	Azaroa	3	11	Elorrio
169	3	160	Gaztañazatorre Onagoitia, Fernando	Azaroa	3	11,30	Elorrio
172	2	160					
185	2	206	Guezala Irigoyen, Jacinto Javier Gallastegi, Lander	Azaroa	3	12,15	Elorrio
189	2	201	Mendivil Arando, Roberto	Azaroa	3	12,45	Elorrio
191	2	208	Jauregui Gallastegui, Valentín	Azaroa	3	13,15	Elorrio
213	1	87	Izaga Goikoecheandia, Luis Hdos.	Azaroa	3	13,45	Elorrio
197	2	297	Irazabal Berriozabal, Valentín	Azaroa	5	9	Elorrio
201	1	218	Arabiotorre Lasuen, Javier	Azaroa	5	9,30	Elorrio
203	1	57					
211b	1	224					
212	1	42	Ugaldea Landa, Tomás	Azaroa	5	10,15	Elorrio
215	1	43	Valenciaga Gacetabeitia, María	Azaroa	5	10,45	Elorrio
5	5	184	Arregi Cortabarria, Juan	Azaroa	5	11,15	Elorrio
20	5	148	Marzana Arrinda, Maria	Azaroa	5	11,45	Elorrio
24	5	147	Eguen Eguren, M.ª Teresa	Azaroa	5	12,15	Elorrio
27	4	2	Ibarrondo Eguen, Luis	Azaroa	5	12,45	Elorrio
37	4	116	Ugaldea Landa, Tomás	Azaroa	5	13,15	Elorrio
39	4	304					

Abadiñoko Udala

Katastroko Datuak							
Lur Saila (Proiektuaren Arabera)	Polígonoa	Lurzaila	Titularra	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udala
15	5	342	Arrinda Mondragón, José Luis	Azaroa	10	9	Abadiano
17	5	103					
28	5	82	Gorostiza Aguirre, Ignacio	Azaroa	10	9,45	Abadiano
30	5	353					
31	5	84					
32	5	337					
33	5	354					
43	5	71	Olea Azcarraga, M.ª Begoña	Azaroa	10	11,45	Abadiano
44	5	64					
45	5	65					
54	5	54	Berrizbeitia Urien, Angel	Azaroa	10	12,30	Abadiano
55	5	53					
57	5	55					
59	5	361	Municha Berriozabalgoitia, Jon	Azaroa	12	9	Abadiano
60	5	51					
61	5	49					
62	5	362	Navarro Garay, Fco. Javier	Azaroa	12	9,45	Abadiano
63	5	47					
65	5	46					
68	5	43	Urien Uruburu, Serafín	Azaroa	12	10,30	Abadiano
69	5	45					
70	5	37	Oteiza Totoricaguena, Carmelo	Azaroa	12	11,15	Abadiano
71	5	36					
72	5	38					
73	5	28	Urien Uruburu, M.ª Milagros	Azaroa	12	12	Abadiano
75	5	20	Fernandez de Larrea Navarro, Jose M.	Azaroa	12	12,30	Abadiano
77	5	327					
79	5	326					
78	5	329	Badaya Alzaga, M.ª Begoña	Azaroa	17	9	Abadiano
82	5	19					
81	5	14	Gaztel-Urrutia Municha, Beñat	Azaroa	17	9,45	Abadiano
85	5	11	Uriarte Barinaga, Javier	Azaroa	17	10,15	Abadiano
87	5	3	Berrizbeitia Urien, Angel	Azaroa	17	10,45	Abadiano
88	5	288					
90	6	271	Atalay XXI S.I.	Azaroa	17	11,30	Abadiano

Zaldibarko Udala

Katastroko Datuak							
Lur Saila (Proiektuaren Arabera)	Polígonoa	Lurzaila	Titularra	Hilabetea	Eguna	Ordua	Udala
11	1	216	Izurrategui Azcarretazabal, Isabel	Azaroa	19	9	Zaldibar
15	1	286					
28	3	45					
19	3	17	Belar Zuricaray, Joseba Andoni	Azaroa	19	10	Zaldibar
21	3	18					
31	3	71					
32	3	70					
65	2	321	Zugadi Mendataurigoitia, Imanol	Azaroa	19	11	Zaldibar